

# ELGOIBARKO UDALEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA

**2025-2028**

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. AURREKARIAK.....	4
3. LEGE ETA ARAU ESPARRUA.....	5
4. PROZESUA ETA LAN METODOLOGIA.....	6
5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA.....	9
6. V. PLANAREN EXEKUZIOA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA .....	21
7. AURREKONTUA .....	23

## 1. SARRERA

Elgoibarko Udalak ibilbide luzea du berdintasunaren arloan, eta 2009az geroztik urrats egonkorak egin ditu, intentsitate pixkanaka handituz. Urte horretan egin zen Berdintasuneko I. Plana. Agerikoa da berdintasuna oso presente dagoela udalaren agendan eta 2023-2027 Legegintzaldiko Planean ere ikus daiteke. Gainera, udalerrian berdintasunaren aldeko udal-sare komunitarioa dago, geroz eta handiagoa da eta finkatuago dago.

Hortaz, 2009an, Euskadiko Administrazioak erdietsitako konpromisoekin bat etorriz, Udalak 2008-2011rako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana onartu zuenetik, modu aktiboan lanean jarraitu du berdintasuneko beste hiru plan egiten. Plan horiek, 4 ardatz hauek jorratu dituzte, EAEn ezarritako planen ildo beretik (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana): **Gobernu Ona, Emakumeen Ahalduntzea, Ekonomiaren Eraldaketa eta Gizartearen Antolaketa eta Emakumeen kontrako Indarkeriarik Gabeko Bizitzak.**

Garrantzitsua da egindako bidea ebaluatzea, plan berria diseinatzeko. Horretarako, egindako lana neurtuz egin da ebaluazioa, eta IV. Planaren ekintzak eta urteko plan operatiboetan aurreikusten diren ekintza zehatzagoen betetze-maila identifikatu da.

Beraz, tokiko mailan berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzen duten politika publikoak planifikatzen eta garatzen jarraitzeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak bermatzeko apustu sendoarekin, Elgoibarko Udalak 2025-2028 aldirako V. Berdintasun Plana diseinatu du.

Plan horrek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian ezarritako irizpideen gida jarraitzen du eta Elgoibarrek datozen lau urteetarako dituen estrategia eta lehentasunezko ekintzak islatzen ditu.


Dokumentu tekniko honetan prozesu parte-hartzailearen emaitzak aurkeztuko ditugu, eta honako hauen konpromisoa eta inplikazioa aitortu behar ditugu:

- Berdintasun Saila eta Alkatetza.
- Udaleko hainbat sailtako erreferentziazko teknikariak; hiru batzordeen bidez: Herritartasuna, Antolakuntza eta Zuzendaritza Taldea
- Udaleko langileak;
- Lilako Mahaia espazioa osatzen duten erreferentziazko pertsonak;
- Elgoibarko herritarrak.

Pertsona horien ekarpenek argitzen dute 2025-2028 aldirako V. Berdintasun Plana. Planaren helburua Elgoibarko errealitatera, beharretara eta lehentasunetara are gehiago egokitzea da, eta datozen lau urteetan zeharkako eta ezinbesteko arlo honetan ezartzen diren ekintzen erreferentziazko tresna nagusia izatea.

## 2. AURREKARIAK

Jarraian, Elgoibarko Udalak diseinatutako eta garatutako politika publikoak islatu ditugu denbora-lerro baten bidez, bai eta Elgoibarko V. Berdintasun Planaren garapena baldintzatu eta testuinguruan jarri duten mugarririk garrantzitsuenak ere.



### 3. LEGE ETA ARAU ESPARRUA

Jarraian, hainbat izaera eta mailatako organismo publikoek emakumeen eta gizonen arteko eskubideen eta aukeren berdintasunean aurrerapausoak egiteko sustatu dituzten lege eta arauen esparru espezifikoa aurkeztuko dugu. Esparru horren barruan sartzen da Elgoibarko V. Berdintasun Plana.

#### Nazioarteko esparrua

- Europako Batzordearen 2018-2023rako Genero Berdintasunerako Estrategia.
- Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma (Beijing 1995ko konpromisoen berrikuspena).  
NBE, 2015eko irailak 15.
- Europako Kontseiluak emakumeen aurkako eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka egiteari buruz eginiko hitzarmena (Istanbuleko Hitzarmena).  
2011ko maiatzak 11.
- Tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko Europako Gutuna.  
2008ko apirilak 30.
- Emakumearen kontrako diskriminazio modu oro ezabatzeari buruzko konbentzioaren protokolo fakultatiboa.  
1999ko urriak 6.
- Beijingo Emakumeen Munduko Konferentzia.  
NBE, 1995eko irailak 4-15.
- Emakumeen aurkako indarkeria amaitzeko adierazpena (CEDAW).  
1993ko abenduaren 20ko 48/104 Batzar Orokorra.
- Emakumearen kontrako diskriminazio modu oro ezabatzeari buruzko konbentzioa.  
1979ko abenduak 18, Espainiak berretsia. 1983ko abenduak 16

#### Esparru nazionala

- Sexu-askatasunaren berme osorako 2022ko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzkoa.
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna
- Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

#### Esparru autonomikoa


- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutakoa
- EAEn Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen arreta koordinatzeko erakunde arteko III. Hitzarmena (2023)
- EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia (2024)

#### Foru-esparrua

- Gipuzkoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2020-2023).
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua.

## 4. PROZESUA ETA LAN METODOLOGIA

IV. Planaren ebaluaziorako, Berdintasun Diagnostikorako eta 2025-2028 aldirako Elgoibarko V. Berdintasun Plana diseinatzeko ezarritako lan-prozesuan teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili dira, eta horrek hainbat motatako eragileen parte-hartzea sustatu du. Zehazki:



Jarraian, IV. Plana ebaluatzeko eta Elgoibarko V. Berdintasun Plana diseinatzeko egin diren urratsak eta bakoitzean aplikatutako metodoa zehaztuko ditugu.



### LEHEN URRATSA: LANEKO PROZESUA ADOSTEA

Udalerrian Talde Eragile bat eratu da Berdintasuneko zinegotzigoarekin eta sailarekin, lanaren prozesua kontrastatu eta berrikusteko. Talde hori arduratu da proiektua bideratzeaz, berrikuspenerako beharrezko dokumentua emateaz eta planaren ebaluazioan eta prestakuntzan hainbat unetan parte hartu duten askotariko eragileak, profil profesionalak eta pertsonak identifikatzeko irizpideak ezartzeaz. Talde Eragilea arduratuko da Elgoibarko 2025-2028rako V. Berdintasun Plana zabaldu eta ezartzeaz, baita Urteko Plan Operatiboak egiteaz ere.

### BIGARREN PAUSOA: 2020-2023RAKO IV. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA

2020-2023rako IV. Berdintasun Plana ebaluatzeko, udalerriko errealitatea eta azken legegintzaldian garatutako berdintasuneko politika publikoen garapena ezagutzeko dokumentuak aztertu dira. Dokumentuak berrikustearekin batera, udalerrian Berdintasunaren arloan erreferentziakoak diren pertsonen elkarrizketak egin zaizkie, bai maila politikoko, bai maila teknikoko pertsonen. Halatan, egindako lana neurtu eta IV. Plana osatzen duten gidalerroen betetze-maila identifikatu da. Halaber, ezarpen-prozesuaren zein lortutako

emaitzen balorazio kuantitatiboa egin da, eta horri esker exekuzioan sortu diren zailtasunak eta oztopoak hauteman ahal izan dira. Informazio hori ezinbestekoa izan da V. Plana egiteko diagnostiko eta abiapuntu gisa.

## HIRUGARREN PAUSOA: 2025-2028RAKO V. BERDINTASUN PLANAREN DISEINUA ETA DIAGNOSTIKOA

Berdintasun egoeraren Diagnostikoa eta V. Berdintasun Planaren diseinua izan dira prozesuaren urrats parte-hartzaileenak.

Berdintasunaren arloan maila politikoan zein teknikoan udalerrian **ERREFERENTEAK DIREN PERTSONEI EGINDAKO ELKARRIZKETARI** esker udalak berdintasunaren arloan egun dituen baliabideen egitura eta bitartekoak ezagutu ahal izan dira; Elgoibarren errealitatearen gaineko gogoeta egin ahal izan da (arazoak, kezka eta interesak) eta etorkizunera begira lehentasunezkoak eta esanguratsuenak diren erronkak eta ekintzak identifikatu dira. Elkarrizketak egin dira Berdintasuneko teknikariarekin<sup>1</sup>, Berdintasuneko zinegotziarekin, Elgoibarko alkatearekin eta Gizarte Ongizateko arduradunarekin.

Halaber, **BI LANTALDE** deitu dira:

1

### Teknikaria eta udaleko ordezkari politikoak

Sail guztietako ordezkari teknikoentzako deialdia, hiru koordinazio-espaziotan banatuta: Herritartasuna, Antolakuntza eta Zuzendaritza. Espazio horietan, ordezkari politikoak ere badaude.

2

### Lilako Mahaia

Elgoibarren feminismoarekin konprometita dauden emakume independenteak.

Hauek izan dira elkarrizketen eta lantaldeen helburuak:

- Berdintasunaren arloan udaleko sailen artean dagoen koordinazioaren eta komunikazioaren maila ezagutzea.
- Udaleko hainbat sailetan berdintasunaren printzipioa eta genero-ikuspegia txertatzen duten berdintasunaren arloko barne-politiken hedapenari buruzko pertzepzioa zein den jakitea.
- Berdintasunarekiko sentsibilizazioaren eta konpromisoaren maila aztertzea, bai udaletxe barruan, bai udalerrian bertan.
- Diagnostikoaren, ahultasunen, indarguneen eta aukeren dokumentuari informazio kualitatiboa eskaintzea eta erronkak identifikatzea.
- Berdintasunaren arloko erronka esanguratsuak eta hobetzeko eta jarduteko proposamenak identifikatzea, planean txertatzeko.

Azkenik, bi **GALDETEGI** mota zabaldu dira birtualki (baita fisikoki ere herritarrentzako galdetegi kasuan).

<sup>1</sup> Berdintasuna bultzatzeko egiturari lanean ari den teknikaria Berdintasunari buruzko prestakuntza (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Masterra) eta eskarmentua du Berdintasun politikak kudeatzen.



Galdetegi birtualek honako hauek eskaini dituzte:

- Udalean ezarritako berdintasuneko politiken gaineko iritzia jasotzea udal barruan, zein kanpoan.
- Udaletxean zein udalerrian gertatzen diren desberdintasunen, diskriminazioen eta emakumeen aurkako indarkeria moten gaineko pertzepzioen berri jasotzea.
- Udaleko langileen artean zein herritarren artean berdintasunarekiko dagoen sentsibilizazioaren eta konpromisoaren maila aztertzea.
- Beste espazio batzuetatik identifikatutako indarguneak eta ahultasunak baliozkotzea eta diagnostikoaren dokumentua aberastea.
- Herritarrek berdintasunaren arloan izan ditzaketan proposamenak biltzea, V. Planean ezartzeko.

Egindako lantaldeen eta elkarrizketen artean, guztira 25 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte eta udalari zuzendutako galdetegitik 28 erantzun bildu dira, eta herritarrentzako galdetegitik, 42.

Nabarmenezkoa da lantaldeek azterketarako informazioa eskaintzeaz gain sentsibilizaziorako, ezagutza partekatzeko eta elkartzeko espazioa ere eskaintzen dutela. Galdetegien kasuan, tresna oso eraginkorrak dira udalak berdintasunaren arloan garatu duen lan-prozesua barruan eta kanpoan sozializatzeko, eta parte-hartze libreak eskaintzen dituen aukerak zabaltzeko.

Espazio eta parte-hartze tresna horien bidez bildutako informazio guztiari esker, eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren jarraibideei eta egiturari jarraituz diseinatu da Elgoibarko 2025-2028rako V. Berdintasun Plana.

## **LAUGARREN PAUSOA: DOKUMENTUA ZABALTZEA**

IV. Planaren ebaluazioa eta V. Planaren aurretik doan Berdintasunaren diagnostikoa egin ondoren, eta V. Plana diseinatu ostean, dokumentu hau eta udalaren ohiko bitartekoetatik zabaltzeko praktikoagoak eta eraginkorragoak izan daitezkeen beste eduki eratorri batzuk aurkeztea eta sozializatzea aurreikusi da: aurkezpen publikoa, webgunea, sare sozialak, etab.

## 5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA

Elgoibarko Udalaren 2025-2028ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana 2023ko martxoaren 16ko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren barruan sartzen da. Halaber, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian ezarritako irizpideen gida jarraitu da<sup>2</sup>.

Horregatik, plana egiteko garaian premisa hauek kontuan hartu dira.

- Genero-ikuspegiaren **zeharkakotasuna**, udaleko sail eta zerbitzu guztien zeregina dela aintzat hartuz.
- Zeharkakotasun hori sustatzeko eta lankidetzaz-egiturak sortzeko **sailen arteko koordinazioa**.
- **Teknikarien inplikazio politikoa eta parte-hartzea**, iritziak partekatzeko lan-espazioen bitartez (lan-saioak berdintasun zinegotzigoari atxikitako talde politiko-teknikoarekin, lantaldea udaleko hainbat sailtako erreferentziazko teknikariek, langileen artean galdetegia zabaltzea...).
- Tokiko mugimendu feministaren **parte-hartze soziala** prozesuan zehar, Lilako Mahaiaren parte diren emakume konprometituen bitartez (lantaldeetan hartu dute parte) eta herritar guztien bitartez (zabalduko galdetegiaren bitartez).
- Barne zein kanpo **komunikazioa**, planaren abiaraztearen, prestakuntza-prozesuaren eta emaitzen berri emateko (tokiko prentsa, udalaren webgunea, informazio zuzena intereseko taldeentzat, aurkezpen publikoa...).

Lan-prozesuan abian jarritako jarduketa guztiek, eta, ondorioz, bildutako ekarpen guztiek argitu dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plan hau. Planean ezarrita daude Elgoibarrerako arlo horretan datozen lau urteetarako lehentasunezkoak izango diren ekintzak (2025-2028). Planaren estrategia da Elgoibarreko errealitatera, beharretara eta lehentasunetara are gehiago egokitzea, eta zeharkako eta ezinbesteko arlo honetan ezartzen diren ekintzen erreferentziazko tresna nagusia izatea.

Aipatu beharra dago aurreko atalean ('Prozesua eta lan-metodologia') azalduko metodoen bitartez identifikatutako ekintzak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren gomendioen arabera sailkatu direla. Horregatik, Elgoibarko V. Berdintasun Planaren ekintzak azaldu aurretik, horrekin lortu nahi diren 11 helburuak bilduko ditugu eta ekintza horiek sailkatzeko lau ardatzak argituko ditugu, laburpen txiki batekin:

---

<sup>2</sup> EAEko emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2024ko otsailaren 13an, EAEko botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea behar bezala aplikatzeko bide-orria izan dezaten.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 estrategia da 2030ean Euskadin hamaika helburu zehatz hauek lortzeko plangintza-tresna:

1. Euskadiko egungo Genero Berdintasunaren Indizea handitzea, 75 puntuak gainditu arte.
2. Euskadiko administrazio publikoen % 1,5 gutxienez berdintasun-politiken garapenera bideratzea.
3. Euskadiko erakunde guztiek berdintasuneko zerbitzuak eta unitateak izan ditzaten lortzea, helburuak betetzeko behar adina langilerekin eta aurrekontu-zuzkidurarekin.
4. Euskadiko administrazio publikoetako langile guztien prestakuntza oinarritzkoa, pixkanakakoa, iraunkorra eta derrigorrezkoa bermatzea.
5. Genero-arrakala gutxienez erdira murriztea, EAEko enplegu-tasari dagokionez.
6. Euskadiko soldataren genero-arrakala 5 puntu murriztea.
7. Euskadiko hezkuntza-sistemako zentro guztiek hezkidetzeta plan propioa izan dezaten lortzea, haien egoeraren diagnostikoari erantzun eraginkorra emateko.
8. EAEko genero-arrakala gutxienez erdira murriztea, etxeko lanei eta zaintza-lanei dagokienez.
9. EAEn bizi diren pertsona guztientzat emakumeen aurkako indarkeria matxista onartezina izan dadin lortzea.
10. EAEn eraildako emakumeen kopurua zerora murriztea, babes-sistemaren barruan.
11. EAEko Administrazio orokorretik bermatzea indarkeria matxistaren biktimek dirulaguntzak jasotzen dituztela, indemnizazioen ustezko ez-ordaintze kasuetan.

Eta 4 ardatz estrategiko hauetan sailkatzen da:

### **1. Gobernu Ona**

Barne-ardatza da, eta lotuta dago administrazio publikoaren erakunde aldetarekin, aldaketa funtzionalarekin eta operatiboarekin. Gobernu Onak esan nahi du emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politiko esplizitua dagoela. Gobernu onaren bidez indartu egin nahi da berdintasunarekiko konpromisoa botere publikoen gobernu-sisteman eta erakundeek sustatutako politiketan, programetan eta jarduketetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrak inpaktu handiagoa izatea lortu nahi da. Prozesu horretarako, berdintasunaren aldeko erabakiak nola hartzen diren eta garapen soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa berdintasunetik sustatzeko eskuragarri dauden baliabideak nola erabiltzen diren berrikusi behar da. Administrazio Publikoak interpelatu ditu, gogoeta propioa sustatzeko eta haien gobernantza-eredua eraldatzeko arduradunak baitira, bai emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako printzipioa integratzeko, bai jarduketa guztietan genero-ikuspegia ezartzeko. Administrazioek arlo horretan duten erantzukizuna Berdintasun Sailak egiten duen lan espezifikoetik harago doa, eta makro zein miko egiturari eta funtzionamenduari eragiten dioten jarraibideak ezartzen dituzte: akordio instituzionalak, aurrekontuen esleipenak, kontratuzko klausulak, dirulaguntza espezifikoak, hizkera inklusiboaren eta irudi ez sexisten erabilera eta zabalpena...

## 2. Emakumeen ahalduntzea

Emakumeetan oinarritutako ardatza da eta (auto)kontzientzia feministarekin lotutako ekintzak bermatzen, sustatzen eta ezartzen ahalegintzen da. Gainera, bizitzako hainbat arlotan, bai pribatuetan, bai publikoetan, horiek duten babes eta aitortza espezifikoak bermatzen du. Hortaz, prozesu pertsonal edo indibiduala da, baina baita prozesu eta tresna kolektibo, sozial eta politikoa ere. Ahalduntzea da indarkeria matxistarekin amaitzeko, emakumeen autonomia ekonomikoa eta parte-hartze soziala sustatzeko eta haien giza eskubideak, politikoak eta zibilak betetzen direla bermatzeko bide nagusia. Gainera, berdintasunerako euskal legearen helburu orokorra, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Agendaren helburua eta Europako Batzordearen Genero Berdintasunerako Estrategiaren zutabeetako bat da. Emakumeen ahalduntzea ezinbestekoa da emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko eta administrazio publikoak ikuspegi interseksionala aplikatzera eta babestera behartzen ditu, emakumeek bizi dituzten askotariko diskriminazio-motak ikusarazteko eta horiei erantzuteko, baita ikuspegi feminista duten lidergoak aplikatzeko ere, emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa lortzeko helburuarekin.

Emakumeen ahalduntzeari dagokionez, Legegintzaldiko Planaren I. lan-ildoan, Elgoibar Bizixan, hau jasotzen da espezifiki:



**bizi**  
**mañtatu, egin**  
LEGEALDI PLANA — 2023-2027 —

# herri bizixa

## 1

### I. Industriarekin lankidetzan aritzea ongizatea sortzeko

- Ikastetxeekin batera, hezkuntzatik lan-mundurako igarobidea indartuko dugu, betiere emakumea ikusaraziz.

### 4. Kirola aldetaren tresna gisa erabiltzea

- Emakumeen artean kirola egitea eta jarduera fisikoa bultzatzen dituzten jarduerak, ikastaroak, jardunaldiak... sustatuko ditugu.
- Begiraleak eta entrenatzaileak genero-berdintasunean trebatuko ditugu kirolaren bidez.

### 3. Antolakuntza sozial bidezkoa, parekidea eta jasangarria

Dimentsio sozio-ekonomikoan zentratutako ardatza da eta eragile sozialen, ekonomikoen eta politikoen inplikazioa bermatzen ahalegintzen da, eredu soziala eta ekonomikoa aldatzea lortzeko. Hala, bermatu daiteke politikak bizitzaren eta pertsonen jasangarritasuna, elkarrekiko mendekotasuna eta ekodependentzia bermatzea. Gainera, oso garrantzitsua da gizarteak berak aldaketa sozial eta ekonomiko hori ongizatea handitzeko aukera gisa ikustea. Proposamena da bitzita eta ongizate komuna erdigunean jarriko duen helburu baterantz joatea.

Horri dagokionez, 2023-2027 legegintzaldiko Planak ere zaintzak ardatz dituen ekintza-lerro bat jasotzen du:



**3. Ongizate osoantza bat sustatzea**

- Espazio bat sortuz.
  - Errezabal egoitza eraikiko dugu.
  - Santa Klara komentuzaren isara soziala garatuko dugu.
- Adinekoak zaintzeko proiektuak garatzen jarraituko dugu (Zaintzabab, Lagurkioia, Zaharrazo kluboa).
- Egoera zaurgarrian dauden adinekoentzako zerbitzuak hobetuko ditugu.
- Aditzaok Prebentziko Elgoibarko II. Plana garatuko dugu.
- Eraso matxisten aurkeko segurtasun-protektioa eguneratuko dugu.
- Gizarte eta hezkuntza-baliabideak indartuko ditugu, egoera zaurgarriak erantzuteko.
- Haur eta gazteei sexualitate/ drogamengokotasuna bezalako giletan laguntza eskainiko diegu garatzen eta hazten diren bitartean.
- Elgoibarko eskola-kirólaren eredu berria alban jarri eta sustatuko dugu.
- Osasunera bideratutako kiról-ikastaroak antolatu eta bultzatuko ditugu.
- 4. Beldumaldien arteko proiektuak garatzea
- San Lazaro adinekoentzako etxebizitza bihurtuko dugu Errezabal egoitzaren eraikuntza amaitu ondoren.
- 5. Elgoibar bidezkoagoa eta parekideagoa eraikitzea
- Berdintasunerako planak sortzea eta garatzen jarraituko dugu.
- Elgoibarko STEAM emakumeak bultzatuko ditugu.
- Udalerriko emakumezko artistak sortzailak eta eskintzailak ikusaraziko ditugu.
- LGTBI+ pertsonen ongizatearen alde lan egingo dugu.
- Prestakuntza-programak ezarriko ditugu eta maskulinitatesari buruzko kontzientziazio-kampainak antolatuko ditugu.
- Kontziliazioa landuko dugu talentua mantentzeko eta erakartzeko.
- 6. Etxebizitzaren garapena bultzatzea, gazteen emantzipazioa errazteko
- Elgoibarko Gasteizko Emantzipazio Plana garatuko dugu.
- Erago anbulatorioan etxebizitza garatzeko lan egingo dugu.

### 4. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak

Emakume izateagatik edozein indarkeria mota espezifiko jasan duten emakumeen eta haien ingurunearen arreta integralean oinarritutako ardatza da, indarkeria hori erabat desagertzea lortu arte. Berdintasunerako legeak jasotzen duen moduan eta nazioartean aitortuta dagoen moduan, indarkeria matxista giza eskubideen urraketa, lehen mailako arazo soziala eta osasunekoa, eta emakumeen aurkako botere-harremanen arteko desberdintasunen eta diskriminazioaren adierazpena da eta hala ulertu eta joratu behar du Euskadiko sistema publikoak. Horretarako, erakundeek indarkeria matxistari ematen dioten erantzuna giza eskubideekiko errespetutik, babesetik eta sustapenetik egin behar da eta genero ikuspegia eta ikuspegi feminista izan behar du. Halaber, emakumeen erantzunak eta bizi-prozesuak baldintzatzen dituzten askotariko diskriminazioei erreparatu behar zaie eta emakumeen ahalduntzeak izan behar du mugari komuna. Gainera, indarkeriaren aurrean erantzun publiko eta integrala indartzen du, baliabide ekonomikoen, giza baliabideen eta baliabide tekniko bidez, eta problematika horren dimentsioekin zerikusia duten jarduerak biltzen ditu: sentsibilizazioa, prebentzioa, hautematea, esku-hartzea, arreta, osatzea eta aitortza, eta horietan guztietan beharrezkoa den erakundeen arteko koordinazioa.

Jarraian, adierazitako 11 helburuekin eta 4 ardatzekin bat datozen identifikatutako 48 ekintzak jaso ditugu. Horiek osatzen dute Elgoibarko 2025-2028ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. Plan bideragarri, maneigarri eta praktikoaren alde egin da, artikulatzeko eta gauzatzeko erraza izan dadin Urteko Plan Operatibo bidez; horiek bideratuko baitute plana behar bezala exekutatzeko. Halaber, ekintzez harago, ezartzeaz arduratzen diren sailak, lan-espazioak eta/edo erreferentziazko figura arduradunak; esleitutako garrantzia (handia/ertaina/baxua); exekuzioa monitorizatzeko zein ebaluzioa egiteko baliagarriak izango diren adierazleak eta planaren garapena antolatzeko erreferentziazko kronograma ere adieraziko ditugu.

## 1. ARDATZA: GOBERNU ONA

Ekintza	Arduraduna	Garrantzia (handia/ertaina/txikia)	Ebaluazio-adierazleak	Egutegia			
				2025	2026	2027	2028
<b>I. HELBURUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA BERMATZEA</b>							
<b>A.1.</b> Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana eta eratorritako Urteko Plan Operatiboak (UPO) onartzea eta garatzea.	Alkatetza Berdintasuna Batzordeak: Herritartasuna eta bozeramaileen bilera.	Handia	-V. Plana onartzea -UPOak egitea, onartzea eta ebaluatzea.	X	X	X	X
<b>A.2.</b> V. Plana behar bezala garatzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak, materialak, teknikoak eta ekonomikoak pixkanaka egokitzea.	Alkatetza Berdintasuna Antolakuntza, langileak eta gardentasuna Antolakuntza batzordea	Handia	-Baliabide-beharrei buruzko txosten xehea, urteka -Urteko aurrekontuak (€) -Amaierako aurreikuspenaren eta inbertsioaren balantzea (€)	X	X	X	X
<b>A.3.</b> Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoen betetze-maila urtero neurtzea: Diseinatu daitezkeen Urteko Plan Operatiboen zein plan osoaren informazioa biltzeko, neurtzeko eta inpaktua aztertzeko prozesua sistematizatzea.	Alkatetza Berdintasuna	Handia	-Inpaktua neurtzeko adierazleen sistema definitzea (check-list) -Hautatutako adierazleen kopurua -Ebaluazio-aldi bat ezartzea (urte bakoitzaren amaiera).	X	X	X	X
<b>A.4.</b> Dokumentu erraz bat egitea formatu lagunkoi eta erakargarrian, bi urtez behin berdintasunaren arloko aurrerapen nagusiak jasotzeko, betiere, Batzordeei informazioa emateko eta zabaltzeko: Herritartasuna, Antolakuntza, Lurralde eta ZT, eta batez ere, herritarren artean (UPOetatik abiatuta).	Alkatetza Berdintasuna	Handia	-Zabalpen-dokumentua egitea (bai/ez). -Aurkezpen publikoa (bai/ez).		X		X
<b>A.5.</b> Administrazio Publikoen Berdintasunerako Plana egitea, 2022ko abenduaren 23ko 31/2022 Legean xedatutakoaren arabera	Alkatetza Antolakuntza, langileak eta gardentasuna Berdintasuna	Handia	-Udalaren barneko berdintasun-plana egitea (bai/ez).	X			
<b>A.6.</b> Ekitaldi bakoitzeko Berdintasun Saileko dirulaguntzen deialdia egitea eta ebatzea	Berdintasuna Idazkaritza	Handia	-Egindako deialdien kopurua -Ebatzitako deialdien kopurua -Emandako dirulaguntzen kopurua -Bideratutako urteko zenbatekoa (€) -Kopuruaren hazkundera aurreko urtearekin alderatuta (%)	X	X	X	X

<b>A.7.</b> M8ko eta A25eko kanpainen konpromisoa eta inplikazio aktiboa mantentzea: adierazpen instituzionala, jardueren programazioa, etab. Eta LGTBIQ+ (M17, E28...) kanpaina zehatzen bat txertatzea	Alkatetza Berdintasuna	Handia	-Adierazpen instituzionalak (bai/ez) -Antolatutako jardueren kopurua -Kanpaina berriak, LGTBIQ+ datak.	X	X	X	X
<b>A.8.</b> Berdintasunaren arloko oinarrizko prestakuntza eskaintzea bai politikariei, bai teknikariei, eta maskulinizatutako arloetan bereziki eragitea.	Alkatetza Barne Antolakuntza Berdintasuna Sail guztiak	Handia	-Emandako ikastaro kopurua -Parte-hartzaileen kopurua -Ikastaroen balorazioa (galdetegia) -Ezarpn maila (parte hartzaileen %, aurreikusitako guztizkoaren arabera)	X	X	X	X
<b>II. HELBURUA: ADMINISTRAZIO JARDUERAN BERDINTASUNA TXERTATZEA</b>							
<b>A.9.</b> Arau eta ekintza administratiboaren eragina neurtzeko ebaluazioak egitea, genero-ikuspegiaren arabera (eraikuntza berriak, udal-baliabide berriak...)	Berdintasuna Sail guztiak	Ertaina	-Giden kontsulta (bai/ez) -Kordinazioarako bileren kopurua -Ebaluazio-tresna (bai/ez) -Ebaluatutako arauen eta ekintzen kopurua. -Emitzen txostenak (bai/ez)	X	X	X	X
<b>A.10.</b> Arau eta ekintza administratiboetan berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzea (araudiak...).	Berdintasuna Sail guztiak	Ertaina	-Berrikusitako ekintzen eta arauen kopurua -Txertatutako neurrien kopurua -Ezarpn maila (% guztizkoaren arabera)	X	X	X	X
<b>A.11.</b> Aurrekontuek berdintasunean duten eragina aldizka aztertzea.	Berdintasuna Ogasuna eta Kontu-hartzailetza	Ertaina	-Kordinazio-bileren kopurua -Inpaktuaren txostena (emaitzak) -Ekintza zuzentzaile kopurua	X	X	X	X
<b>A.12</b> Berdintasun Sailaren parte hartzea sektoreko eta zeharkako planen lanketa eta jarraipenean (HAPO, PERCO, Euskara Plana...).	Berdintasuna Sail guztiak	Ertaina	-Kordinazio-bileren kopurua -berrikusitako planen kopurua	X	X	X	X
<b>A.13</b> Berdintasunarekin lotutako klausula-kopurua berrikusi eta handitzea kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenatarako.	Berdintasuna Sail guztiak	Ertaina	-Berrikusitako kontratuen kopurua -Berrikusitako dirulaguntzen kopurua -Berrikusitako hitzarmenen kopurua -Ezarpn-maila (berrikusitako kontratuen, hitzarmenen eta dirulaguntzen % guztizkoaren gainean)	X	X	X	X
<b>III. HELBURUA: ERAKUNDEEN GOBERNANTZA EREDUA ERALDATZEA</b>							
<b>A.14.</b> Udaleko Berdintasun Saileko ordezkariaren figuraren parte-hartzea indartzea arlo horrekin lotutako gaiak jorratzen diren eta/edo ikuspegi feminista beharrezkoa den kanpoko lan-sareetan (Berdinsarea, Langune...)	Berdintasuna	Ertaina	-Normalean parte hartzen duen sareen kopurua -Parte hartzen hasi diren sare berrien kopurua -Sare bakoitzeko bileren kopurua -Udalaren parte-hartzearen balorazioa	X	X	X	X
<b>A.15</b> Intersektionalitatea txertatzea politika publikoetan arreta berezia jarriz sexu-aniztasunean eta LGTBI kolektiboan, bai kanpora, bai barrura begira.	Alkatetza Berdintasuna Herriartasuna	Handia	-Kolektiboaren errealitatearen gaineko diagnostikoa (bai/ez) -Barrutik ezarritako ekintzen kopurua -Kanpotik ezarritako ekintzen kopurua -Ezarpn maila (ezarritako ekintzen % aurreikusitakoaren gainean)	X	X	X	X

## 2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Ekintza	Arduraduna	Garrantzia (handia/ertaina/txia)	Ebaluazio-adierazleak	Egutegia			
				2025	2026	2027	2028
<b>I. HELBURUA: EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOARI EKARPENA EGITEKO LAGUNTZA</b>							
<b>A.16.</b> Emakumeen etengabeko prestakuntza sustatzea Lila Etxean, bereziki ezagutzak eta gaitasunak bizitza eta enplegua hobetzeko estrategikoak izan daitezkeen arloetan, hala nola arrakala digitala murrizteko arloetan.	Berdintasuna Ekonomiaren Sustapena eta Enplegua	Handia	-Eskainitako prestakuntza-saioen kopurua -Emakume parte-hartzaileen kopurua -Prestakuntzen balorazioa (galdetegia) -Ezarpn-maila (emakume parte-hartzaileen % identifikatutako kolektiboaren guztizkoaren gainean)	X	X	X	X
<b>A.17</b> Enplegua eta prestakuntza sustatzeko eta orientatzeko programetan emakumeen ahalduntzea txertatzen jarraitzea.	Berdintasuna Gizarte Ongizatea	Ertaina	-Programa, proiektu edo neurri espezifikoak -Emakume parte-hartzaileen kopurua -Ezarpn-maila (emakume parte-hartzaileen % identifikatutako kolektiboaren guztizkoaren gainean)		X	X	X
<b>A.18</b> Lanpostu tekniko eta teknologikoetan emakumeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea eta erreferente gisa ikusaraztea.	Berdintasuna Sustapen ekonomikoa	Handia	-Eginiko prestakuntza-ekintzen/pilulen kopurua -Emakume parte-hartzaileen kopurua -Ezarpn-maila (emakume parte-hartzaileen % identifikatutako kolektiboaren guztizkoaren gainean)	X	X	X	X
<b>II. HELBURUA: EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA ARLO GUZTIETAN EGINDAKO EKARPENAK BALORATZEA</b>							
<b>A.19.</b> LILA ETXEAREN aldeko apustua mantentzea, autoezagutza, ahalduntzea, garapen integrala eta emakumeen bizi-kalitatea sustatzen duten jardueren eta prestakuntzen programazioarekin.	Berdintasuna Lilako Mahaia Elkarte feministak Hirugarren sektoreko elkarteak	Handia	-Urteko jardueren kopurua -Emakume parte-hartzaileen kopurua -Jarduera berrien proposamenen kopurua -Programazioaren balorazio orokorra (galdetegia)	X	X	X	X
<b>A. 20</b> LILAKO MAHAIA espazioa finkatzea eta sortu berri diren beste berdintasun-espazio batzuekin bizikidetzara hobetzea.	Berdintasuna Lilako Mahaia Beste gune feminista batzuk	Handia	-Guneen arteko bilera kopurua -Proposatutako jardueren kopurua -Garatutako jardueren kopurua -Ezarpn maila (garatutako ekintzen % proposatutako guztien gainean) -Parte-hartzaileek egin duten prozesuaren balorazioa (galdetegia)	X	X		
<b>A.21.</b> Emakumeen elkarteei eta taldeei laguntzea, haien plangintzaren kudeaketa eta garapena sustatzeko eta jarduerak gara ditzaten udaleko azpiegiturak eta bitartekoak lagatzeko.	Berdintasuna	Ertaina	-Artatutako elkarten kopurua -Gauzatutako jardueren kopurua eta tipologia -Utzitako azpiegituren eta baliabideen kopurua -Eskainitako zerbitzuaren balorazioa (galdetegia)	X	X	X	X

<p><b>A.22.</b> Emakumeek udalerrriaren funtzionamenduaren hainbat arlori (elkarteak, kirol-taldeak, komertzioak, herritarren ekimena sustapena...) egiten dioten ekarpena eta duten presentzia ikusaraztea, garrantzia ematea eta aitortzea.</p>	<p>Berdintasuna Lilako Mahaia Udalerriko beste elkarte batzuk</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Identifikatutako emakumeen kopurua -Ezarritako ekintzen kopurua (Lila sariak...) -Aitortza publikoa egiteko ekitaldien kopurua (Kirol Federatuaren Urteko Sarien Gala...) -Partaideen kopurua</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>III. HELBURUA: EMAKUMEEI HAIEN ESKUBIDEAK MODU ERAGINKORREAN GAUZATZEKO AUKERA BERMATZEA</b></p>							
<p><b>A.23</b> Jarduera fisikoan eta kirolean berdintasuna eta sexu-dibertsitatea sustatzeko estrategiarekin jarraitzea. Udalerriko eragile publikoekin (ikastetxeak-eskola kirola) zein pribatuekin (taldeak, gimnasioak...) lankidetzan aritzea, kirola sustatzeko eta osasuna eta ongizatea hobetzeko (eskubideak). (2023-2027 Legegintzaldiko Planarekin bat etorritik, aldaketarako tresna gisa).</p>	<p>Berdintasuna Kirol Patronatua Ikastetxeak-eskola kirola Talde pribatuak Kirol-elkarteak</p>	<p>Handia</p>	<p>-Lortutako hitzarmenen kopurua -Garatutako jardueren kopurua -Ezarpn maila (garatutako ekintzen % proposatutako guztien gainean) -Jardueren inpaktuaren balorazioa (galdetegia, irismenaren analisia...)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>A.24</b> Lila Etxean askotariko programazioa ezartzen jarraitzea, ikuspegi intersektionala aintzat hartuta (adina, jatorria, dibertsitate funtzionala, identitatea eta sexu-orientazioa...).</p>	<p>Berdintasuna Lilako Mahaia Askotariko emakumeak</p>	<p>Handia</p>	<p>-Jarduera-kopurua -Emakume parte-hartzaile kopurua -Gogobetetze-maila (galdetegia) -Jardueren inpaktuaren balorazioa (emakume parte-hartzaileen %, guztizkoaren arabera)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>A.25</b> Emakumeen sareak sustatzea, ikuspegi intersektionala kontuan izanda (adina, jatorria, aniztasun funtzionala, identitatea eta orientazio sexuala)</p>	<p>Berdintasuna Lilako Mahaia Askotariko emakumeak</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Emakumeen arteko bilera kopurua -Emakume parte-hartzaile kopurua -Gogobetetze-maila (galdetegia)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>

### 3. ARDATZA: ESKUBIDEAK BERMATZEKO EKONOMIAREN ETA ANTOLAKETA SOZIALAREN ERALDAKETA

Ekintza	Arduraduna	Garrantzia (handia/ertaina/txikia)	Ebaluazio-adierazleak	Egutegia			
				2025	2026	2027	2028
<b>I. HELBURUA: ZAINTZAREN DEMOKRAZIA ERAIKITZEKO AURRERAPAUISOAK EMATEA</b>							
<b>A.26</b> Zaintzen arloa modu integralagoan eta zeharkakoagoan jorratzea, diagnostiko bat eginez arlo horretan dauden behar nagusiak identifikatzeko eta Elgoibarren pertsonen zaintzara bideratutako politika publikoak, baliabideak eta udal-programak hobetzeko.	Alkatetza Berdintasuna Herritartasuna Gizarte-ongizatea	Handia	-Zaintzen diagnostikoa egitea (bai/ez) -Eragile parte-hartzaileen kopurua -Emakume parte-hartzaileen kopurua -Identifikatutako ekintzen/hobekuntzen kopurua -Ekintzen ezarpenaren egutegia (bai/ez)	X			
<b>A.27.</b> Alternatiba berriak eskaintzea kontziliazioa ahalbidetzen duten udal-zerbitzu eta -baliabideetan. Kontziliazioa adingabeen zein adinekoen zaintzarako izan daiteke.	Alkatetza Berdintasuna Gizarte Ongizatea	Ertaina	-Ezarritako jardueren/neurrien kopurua -Onuradunen kopurua -Hobekuntza-maila (onuradunen % identifikatutako kolektiboaren guztizkoaren gainean)		X	X	
<b>A.28</b> Gizonei zuzendutako kanpainak eta ekimenak egitea, zaintzekiko kontzientziarioekin eta erantzunkidetasunarekin lotuta (gurasotasun positiboa, hazkuntza kontzientea...). Legegintzaldiko Planak jasotzen duen moduan (2023-2027).	Berdintasuna Herritartasuna Gizarte Ongizatea	Handia	-Sentsibilizazio-kanpainen kopurua -Sortutako lantalde kopurua Parte-hartzaileen kopurua -Gogobetetze-maila (galdetegia)	X	X	X	X
<b>II. HELBURUA: BERDINTASUNA GAUZATZEA ETA EZARTZEA ERAKUNDEEN KULTURAN ETA PRAKTIKAN</b>							
<b>A.29</b> Elgoibarko enpresa-sarea sentsibilizatzea berdintasun-planak garatzearen inguruan.	Berdintasuna Ekonomiaren Sustapena eta Enplegua	Ertaina	-Sentsibilizazio-ekintzen kopurua -Berdintasuneko Planak dituzten enpresen kopurua eta -Urte arteko aldakuntzaren % (planak dituzten enpresen hazkundera)	X	X	X	X
<b>A.30</b> Tokiko enpresen ehundura eta merkataritzako establezimenduak sentsibilizatzea, emakume guztientzako aukera-berdintasuna sustatzen duten kontratazio-prozesuak ezar ditzaten, batez ere, adinari, jatorriari, erlijioari, sexu-orientazioari eta LGTBI kolektiboaren parte izateari erreparatuz.	Berdintasuna Ekonomiaren Sustapena eta Enplegua	Handia	-Parte-hartzaile kopurua -Sentsibilizazio-ekintzen kopurua -Gako horietatik sustatutako kontratazio-prozesuen kopurua -Ezarpen-maila (egindako kontratuen %, guztizkoaren gainean)	X	X	X	X
<b>A.31</b> Kirol-taldeen lan egitea genero-ikuspegia txertatzeko (2023-2027 Legegintzaldiko Plana betez, aldaketarako tresna gisa).	Berdintasuna Kirol Patronatua Kirol-taldeak	Handia	-Emakumeek kirola egiteko eskuragarri dauden espazioen kopurua eta urte arteko hazkundera. -Hainbat kiroleko emakumezkoen taldeen kopurua eta urte arteko hazkundera.	X	X	X	X

<b>A.32.</b> Kultur programazioa eta herriko jaietan genero-ikuspegia eta sexu-dibertsitatea txertatzeko konpromisoa mantentzea (emakume artisten kopurua handitzea batez ere).	Berdintasuna Kultura Herritartasuna	Ertaina	-Emakumeei zuzendutako jardueren eta ekitaldien kopurua eta urte arteko hazkundea. -Emakumeek egindako jardueren kopurua eta urte arteko hazkundea.	X	X	X	X
<b>III. HELBURUA: GIZARTE ANTOLAKETA BIDEZKOA, PAREKIDEA ETA JASANGARRIA GARATZEKO KONPROMISOA INDARTZEA ETA ZABALTZEA</b>							
<b>A.33</b> Berdintasunaren arloko prestakuntza espezifiko eta gizonei zuzendutako antolatzea (estereotipoekin, genero rolekin eta maskulinitate hegemonikoarekin apurtzeko).	Berdintasuna Herritartasuna	Handia	-Deitutako tailerren/ikastaroen kopurua - Parte-hartzaileen kopurua -Prestakuntzaren balorazioa (galdetegia)	X	X	X	X
<b>A.34</b> -Berdintasuna bultzatzeko programak lantzen jarraitzea haur eta gazteekin. -Aurrekontu-partida espezifiko handitzea. -Hezkidetzaren espazio espezifiko bat bultzatzea, hezkuntza formaleko eragileak zein ez-formalekoak tartean sartzeko.	Berdintasuna Herritartasuna	Handia	-Urteko aurrekontu-zuzkidura (€). -Urteko aurrekontua handitzea (%) -Hezkuntza Mahaiaren saioen kopurua Parte-hartzaileen kopurua -Garatutako baterako ekintza kopurua. -Ezarpn maila (% gultizkoaren arabera)	X	X	X	X
<b>A.35.</b> LGTBIQ+ kolektiboa hein handiagoan ikusaraztea eta herritarrak LGTBIQ+ errealitate horrekin kontzientziatzea (ekintzak eta kanpainak sustatzea).	Berdintasuna Herritartasuna	Handia	-Egindako sentsibilizazio-ekintzen eta kanpainen kopurua -Partaideen kopurua	X	X	X	X

#### 4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

Ekintza	Arduraduna	Garrantzia (handia/ertaina/txikia)	Ebaluazio-adierazleak	Egutegia			
				2025	2026	2027	2028
<b>I. HELBURUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAN ESPEZIALIZATUTAKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIOA, PREBENTZIOA ETA PRESTAKUNTZA INDARTZEA</b>							
<b>A.36.</b> Udaletxeko lan-arloan sexu-jazarpenaren, sexuagatiko jazarpenaren eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuen aurrean jarduteko, eta prebenitzeko eta osotasun morala bermatzeko protokoloa egitea, <i>2022ko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoan</i> xedatutakoaren arabera.	Alkatetza Idazkaritza Barne Antolakuntza Berdintasuna	Handia	-Protokoloa egitea (bai/ez)	X			
<b>A.37</b> Udaleko Udal Zerbitzuetako langileen indarkeria matxistaren arloko prestakuntza espezifikoaren maila zein den aztertzea, horren arabera prestakuntza-ibilbideak planifikatzeko (teknikariak eta politikariak).	Berdintasuna Gizarte Ongizatea	Ertaina	-Prestakuntza-beharrak dituzten pertsonen kopurua -Hautemandako behar nagusiak -Langileen prestakuntzaren maila (prestakuntza-beharrak dituzten pertsonen %, guztizkoaren gainean).	X			
<b>A.38</b> Aurreko ekintzaren emaitzen arabera, arlo horretan hautemandako beharretara egokitutako prestakuntza-ibilbideak antolatzea.	Alkatetza Berdintasuna Gizarte Ongizatea Sail guztiak	Ertaina	-Emandako ikastaro kopurua -Parte-hartzaileen kopurua -Ikastaroen balorazioa (galdetegia) -Ezarpenaren maila (formatutako pertsonen %, guztizkoaren gainean)		X	X	
<b>A.39</b> Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko datuak aldian-aldian jasotzen jarraitzea.	Alkatetza Berdintasuna Gizarte Ongizatea Udaltzaingoa	Handia	-Kasu berrien kopurua -urteko kasu guztien kopurua -Hautemandako indarkeria motak -Urte arteko aldakuntza (%)	X	X	X	X
<b>A.40.</b> Herritarren artean informazio gehiago zabaltzea Indarkeria Matxistaren aurkako baliabideei eta horietara sartzeko moduei buruz (Gida/Eskuorri informatiboa paperean eta online).	Berdintasuna Gizarte Ongizatea Komunikazioa	Ertaina	-Banatutako giden/eskuorrien kopurua -Webguneko deskargen kopurua	X	X	X	X
<b>A.41.</b> Udalerriko gizarte-eragileei, hala nola establezimendu eta denda publikoetako arduradunei, elkarteei eta abarrei, aldian-aldian sentsibilizazio-ekintzak egiten jarraitzea, zero tolerantzia eskatzen duten ekintzak eta jarrerak hauteman ditzaten eta horien aurrean jardun dezaten.	Berdintasuna Tokiko merkatarien eta ostalarien elkarteak	Ertaina	-Sentsibilizazio-ekintzen kopurua -Parte-hartzaileen kopurua -Ezarpen-maila (parte hartu duten establezimenduen %, udalerriko establezimendu guztien gainean) -Ekintzen balorazioa (galdetegia)	X	X	X	X

<p><b>A.42</b> Eraso sexisten eta LGTBI kolektiboaren kontrako erasoen sentsibilizazio-kanpainak eta -ekintzak modu jarraituan mantentzea urtero jaietan, inplikaturako eragileei eta herritarrei zuzenduta.</p>	<p>Berdintasuna Herritartasuna Komunikazioa</p>	<p>Handia</p>	<p>Kanpaina eta sentsibilizazio-ekintzen kopurua -Parte-hartzaileen kopurua -Lortutako inpaktua (parte-hartzaileen % espero den guztizkoaren gainean) -Prozesuaren balorazioa (galdeategia)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>A.43</b> Puntu Beltzak aldizka berrikustea, Elgoibar segurua eta indarkeria matxistarik gabea izateko (2023-2027 Legegintzaldiko Planean jasotzen denaren haritik).</p>	<p>Berdintasuna Herritartasuna, Lurralde Udaltzaingoa</p>	<p>Handia</p>	<p>-Berrikusitako puntu beltzen kopurua -Identifikaturako puntu berrien kopurua</p>	<p>X</p>		<p>X</p>	
<p><b>II. HELBURUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI EMANDAKO ERANTZUNEAN EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA HAIEN AHALDUNTZEA ERDIGUNEAN JARTZEA</b></p>							
<p><b>A.44.</b> Lila Etxea indarkeria matxistaren kasuak identifikatzeko eta biktimaren eskubideen defentsa indibidual eta kolektiborako espazio seguru gisa indartu dadin sustatzea.</p>	<p>Berdintasuna Lilako Mahaia Gizarte Ongizatea</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Koordinaziorako bileren kopurua -Hautemandako kasuen kopurua -Kasuak hautemateko eta laguntzeko prozedura (bai/ez)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>A.45</b> Emakumeen sarearekin eta elkarrekin egindako lana indartzea, espazio seguruagoak sustatzeko eta emakumeen eskubideak eta ahalduntzea bermatzeko. Hala, indarkeria matxistaren kasuak identifikatu ahal izango dira.</p>	<p>Berdintasuna Lilako Mahaia Emakumeen elkarreak Gizarte Ongizatea</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Koordinaziorako bileren kopurua -Hautemandako kasuen kopurua -Kasuak hautemateko eta laguntzeko prozedura (bai/ez)</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>III. HELBURUA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ARTEAN ESKU HARTZE KOORDINATUA SUSTATZEA</b></p>							
<p><b>A.46.</b> Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko tokiko protokoloa eguneratzea.</p>	<p>Gizarte Ongizatea Berdintasuna Taldea eragilea Esku hartutako beste eragileak</p>	<p>Handia</p>	<p>-Bileren kopurua -Eragile parte-hartzaile kopurua -Lortutako hitzarmenen kopurua -Dokumentua/Protokoloa (bai/ez)</p>	<p>X</p>			<p>X</p>
<p><b>A.47</b> Protokoloaren funtzionamenduaren eta koordinazioaren urteko ebaluazioa (Memoria)</p>	<p>Gizarte Ongizatea Berdintasuna Taldea eragilea</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Bileren kopurua -Ebaluazio-memoria egitea (bai/ez)</p>		<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>
<p><b>A.48.</b> Foru Aldundiarekin harreman estua izatea, batez ere udalerrietan eskaintzen diren foru-programekin (Garaitu), betiere, osatze indibiduala eta kolektiboa lortzeko.</p>	<p>Gizarte Ongizatea Berdintasuna</p>	<p>Ertaina</p>	<p>-Bileren kopurua -Udalak hautemandako interes bereziko egoeren kopurua -Komunikazioen kopurua</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>X</p>

## 6. V. PLANAREN EXEKUZIOA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

2025-2028ko V. Berdintasun Plana **exekutatzea** Alkatetzaren, Berdintasun Sailaren, Herritartasuna, Antolakuntza, Lurralde eta Zuzendaritza Taldea Batzordeen, Berdintasuneko zerbitzu eta arlo espezifikoaren, Gizarte Ongizatearen, Barne Antolaketaren, Udaltzaingoaren, Idazkaritzaren, Ogasunaren eta Esku Hartzearen ardura da. Puntu honetan, gogorazi behar dugu Gobernu Ona ardatzaren barruan dagoen V. Planeko jarraibideetako bat hau dela: “gogoeta-prozesua zabaltzea, V. Planaren garapen egokirako beharrezkoak diren baliabide pertsonalak, materialak, teknikoak eta ekonomikoak pixkanaka egokitzea”. Ekintza horren konpromiso politikorik eta ezarpenik gabe, zaila izango da Elgoibarko V. Plana osorik garatzea eta hasieran ezarritako helburuak betetzea.

Arlo teknikoan, talde arduradunak Urteko Plan Operatiboa (UPO) egingo du. Dokumentu horrekin V. Planeko ekintzak urtez urte planifikatu, antolatu eta zehaztu daitezke. Hortaz, komeni da V. Planeko ekintzak indarraldian zehar (2025-2028) egingo diren lau UPOtan txertatzea, hiru irizpide hauen arabera:

- **Garrantzia:** udalak ekintzak ezartzeko markatutako garrantzia (handia/ertaina/baxua).
- **Bideragarritasuna:** une horretan dauden giza baliabideekin, baliabide materialekin eta ekonomikoekin finkatutako aldiaren egingarria.
- **Sekuentzialitatea:** lehenik, ondoren egingo diren ekintzen oinarriak finkatzeko beharrezkoak direnak Berdintasun Sailerik harago (dokumentu garatzeko lehen eta azken arduraduna da), ekintza bakoitzak erakunde arduradunak ditu ezartzen direla bermatzeko. Figura horiek ekintzaren izaeraren arabera aldatzen dira eta V. Planean daude identifikatuta, ekintza bakoitzaren enuntziatuarekin batera.

V. Planaren **jarraipenari** dagokionez, Berdintasun Sailak ezartzen duen barne-kudeaketarako sistemarik harago (teknikaria+zinegotzia+alkatetz), horretarako beste espazio batzuk izatea ere aurreikusten da, besteak beste, Zuzendaritza Taldea, Herritartasuna, Antolakuntza eta Lilako Mahaia bera (emakume independenteek osatua).

Erakundeen arteko koordinazio-egiturei dagokienez, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Elgoibarko Udalak BERDINSAREAN – Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalaren Sarean parte hartzen du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak – Berdintasun organoak sustatutako Gipuzkoako Teknikarien lan-sarea.

V. Planak lau urteko indarraldia du, 2025etik 2028ra; hortaz, **ebaluazioa** bi mailatan antolatuko da: etengabeko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa, betiere, adierazleen sistema baten bidez. Proposamen gisa, adierazle batzuk daude, bai emaitzarenak, bai prozesuarenak, eta Berdintasun Sailarentzako erreferenteak izan daitezke, ekintzaren eta plan osoaren betetze maila neurtzeko eta baloratzeko. Bestalde, gomendagarria da V. Plana exekutatu ondoren inpaktuaren adierazleak erabiltzea, hau da, amaierako ebaluazioan; indarraldian zehar (2025-2028) lortutako eraldaketaren maila denboraren ikuspegitik baloratu ahal izateko.

Datu kuantitatiboek gain, ebaluazioan elementu kualitatiboak eta hautemandako behar berriak ere sar daitezke. Izan ere, V. Plana ixtean, VI. Plana egin daiteke, eraldatu nahi den errealitatearekin lotuagoa. Izan

ere, zorrotz egindako ebaluaziok diagnostiko egokia dakar eta etorkizuneko plan baterako abiapuntu gisa balio du.

Halaber, ezinbestekoa da urte bakoitzaren amaieran UPO bakoitzaren ebaluazioa egitea. Horrek urte horretarako aurreikusitako ekintzen betetze maila zehaztuko du eta hurrengo urteko UPO egiteko ekarpena egingo du, ikuspegi egokituago batetik, benetako aukerekin eta desegokitzapenak eta indartu behar diren puntuak hautemanez. UPO bakoitza ebaluatzeko erabil daitezke adierazle horiek.

Azkenik, **komunikazio** ezarpen-prozesu osoan izan beharko litzatekeen jarduera da, bai barnera, bai kanpora begira. Horregatik, komeni da Elgoibarko Udaleko komunikazio-erreferenteak Berdintasun Sailarekin batera lan egitea, kasu bakoitzerako egokienak diren barne- eta kanpo-kanalek (prentsa-oharra, prentsaurrekoa, sare sozialetako edukia, udal-webgunea eguneratzea, posta elektronikoa, etab.) identifikatutako mugarrien zabalpen egokia bermatzeko.

## 7. AURREKONTUA

Finantzaketari eta bideratu beharreko baliabideei dagokienez, gogoratu behar da, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 15. Artikulua, ekitaldi bakoitzean zehaztu behar direla neurriak/planak garatzeko esleitutako aurrekontuak:

“Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak aktiboki eta progresiboki sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea.”

Berdintasun sailak urteko aurrekontua izango du, Planaren ekintzak gauzatu ahal izateko. Elgoibarko Udalak urtero bideratuko ditu Berdintasun sailera edo Planaren ekintzak garatzeko ardura duten beste sail batzuetara, horretarako behar beste baliabide, gainerako unitateek ere aurreikusi beharko baitute Planaren berezko ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua.

2025. urterako, Berdintasun sailak 82.500 euroko aurrekontua izango du Planaren ekintzak gauzatu ahal izateko. Programa horiek Berdintasun sailak sustatzen ditu lehentasunez, baina baita beste udal sail batzuek ere.

Aurrerantzean, Planaren aurrekontua urtero zehaztuko da, Planean proposatzen diren epeen arabera. Aurrekontu hau proposatutako ekintzak gauzatzeko aukera emango du.